

ANTZERKIA. Nagusiei begira, sei lan antzeztuko ditue hile honen 16tik 21era bitartean

Adinekoentzako Antzerki Astea Otxarkoagako udaltegian izango da

Saturnino Garcia aktoreak prestaturiko testu baten irakurketeagaz zabalduko dabe ekimena

Ainhoa Güemes |

Otxarkoagako udaltegian adinekoentzako Antzerki Astea gertatu dabe, eta egingo diren antzezlana hile honen 16tik 21era bitartean izango dira, arrastiko 19:00etatik aurrera, hain zuzen.

Izan be, Antzerki Aste horretan adineko jendea alkartu eta ondo pasatu daian hainbat emonaldi eskeiniko ditue Otxarkoagako udaltegian; 180 lagun inguru biltzeko tokia izango da bertan. «Jente nagusia eroso egoteko asmoz» barritze lanak egiten dabilz areto nagusian, besteak beste, teloiaren eta argien muntaketa.

Jose Luis Sabas Udako Kultura eta Turismo Saileko zinegotziak atzoko aurkezpenean iragarri ebanez, 12.000 euroko aurrekontua dago ekimen hori gauzatzeko.

Hile honen 16an, Saturnino Garcia aktoreak prestaturiko testu baten irakurketeagaz hasiko da adinekoentzako Antzerki Astea. Egun berean, Aranda de Duero Arco Pajarito antzerki taldekoek *Como esta el servicio* izeneko lana antzeztuko dabe.

Bestetik, 17an, *La casa de los milagros* antzeztuko dau San Jorge Elkarteko Antzerki Taldeak. Durangoko adinekoen Antzerki Taldea 18an izango da, *Prefiero los viajes del inserto* izeneko lanagaz; eta 19an, Er-

muako Antzerki Taldearen eskutik *La dama del alba* antzezlana ikusteko aukerea izango da.

Beti gazte antzerki taldea

«Nagusiak garan arren, gai gara oraindino gauza asko egiteko», esan eban atzo Lorenzo Beti Gazte antzerki taldeko kideak;

ANTZOKIA

180 lagun batzeko tokia izango da Otxarkoagako udaltegian; jendea eroso egoteko barritze lanak egiten dabilz antzokian

Txurdinagako talde horrek *Maribel y la extraña familia* antzeztuko dau 20an; antzezlana eta gero Beti Gazte abesbatzeak kantaiko dau. Azkenik, Sindrome Clown antzerki taldeak *Cuentale a esa gente* izeneko lana eskeiniko dau Otxarkoagako udaltegian, hile honen 21an.



MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

Mikel Toral eta Jose Sabas Kultura Sailekoak, Begoña Gile 3. Barrutiko lehendakaria eta Beti Gaztekoak.

KIROLAK. Leiha bako korrikaldia egingo dabe umeendako, eta ohiko lasterketa herrikoia gero

Itziar Lopezen oroimenezko lasterketa egingo dabe barriro be, Getxon

Iruñe Berro |

Itziar Lopezen omenezko lasterketa egingo dabe Getxon, datorren domekan. Orain hogei urte gertatu eben lehen aldiz Itziarren Omenezko Batzordeak eta Bizkaisport alkarteak; igaz, baina, Batzordeko lagunek izan zituen arazoengaitik bertan behera itzi eben korrikaldia.

Halan, lasterketa bi egingo ditue aurton: leiha bako kilometro biko korrikaldia umeendako, eta bederatzi kilometroko ibilbideko lasterketa. Biek Fadura-

ko udal kiroldegitik urtengo dabe; goizeko hamar eta erdietan, umeen korrikaldia, eta hamaitan, lasterketa.

Bederatzi kilometroko lasterketa Getxoko auzune gehienetatik igaroko da; Faduratik urten eta Algorta, Areta, Neguri eta Getxotik pasatu eta gero, Faturan bertan amaituko da. BI-637 eta BI-3730 errepideak hartuko ditue korrikalariek. Halan, 150 boluntariok zainduko dabe ibilbidea, gurutzeetan trafikoa-gaz sortu daitezkean arazoak saihesteko, batez be.

Dagoeneko 2.000 lagunek emon dabe izena, lasterketan parte hartzeko. Halan eta guzti be, antolatzaileek 4.000 bat lagun itxaroten ditue. Eta datozan urteei begira, 6.000 korrikalari batu gura ditue: «Aurreko urteetan 6.000 parte-hartzaile inguru euki izan doguz, joan dan urteaz geroztik jente asko galdu dogu baina barriro be geurera batzea espero dogu», esan eban Eduardo Txopitea antolatzaileak.

Antolatzaileek agertu eban, herri lasterketa da Getxoko, eta ez dabe goi mailako kirolari askok parte hartzen; gizonen marketa Tadeo Nadak ezarri eban 26 minutu eta 49 segundutan. Eta emakumezkoen marketa, Estibalitz Urrutiak: 31

minutu eta 11 segundutan egin eban ibilbidea, orain hiru urte. Txopitearen esanetan, marka bi horreek gaintzea gatxa da. «Estibalitzen marka, esaterako, Amaia Piedrak eta Cristina Petitek gaintu daikie, baina ez bata ez besteak ez dabe Getxokoan parte hartuko; Piedra Europako txapelketatik ailegau da asteon, eta Petite Usansoloko lasterketan lesionau egin zan, orain aste bi», adierazo dabe antolatzaileek.

Euskal Herriko doako herri lasterketa bakarra da Getxoko. Eta Santa Mariako bidea konpondu ezker, datorren urtean ibilbidea bertara arte luzatzea pentsetan dabilz antolatzaileak. Hamabi kilometro eukiko leukez ibilbideak.

BARAKALDO

II. Alkartasun azokea eta GKEen VII. azokea egingo ditue asteburuon

Erredakzioa |

II. Alkartasun azokea eta gobernuz kanpoko erakunde VII. azokea egingo ditue Barakaldon, asteburuon. Lehen Hezkuntzako Barakaldoko 19 eskolek prestatu dabe Alkartasun azokea, eta zementian lortu dituen bigarren eskuko jostailuak salduko ditue, Herriko plazan, zapatuan. Lortzen daben dirua Munduko Medikuek GKEari emongo deusie, alkarte horrek Bilbon etorkinentzat daukan zerbitzurako.

Hortik aparte, alkartasun tailerrak gertatu ditue Udako Kultura Sailak. Eta arrastiko ordu batean, Barakaldoko Bandak kontzertua eskainiko dau Herriko plazan, azokea egingo daben leku berean. Munduko hainbat herrialdetako musika joko dabe. Iluntzeko zazpitan, Hortzmuga antzerki taldeak *Globalizazioa* obra antzeztuko dau, Bakea eta Hirugarren Mundua GKEgaz batera.

Kultura Sailak agertu dauenez, «Barakaldoko umeak eurak alkartasunean oinarritutako ekimen baten protagonistak izango dira, eta mundua eraldatzeko alkarte lanak daukan garrantzia jakingo dabe; eta hori da azokearen helburu nagusia».

55 GKEk beteko dabe Herriko plazea, domekan

Bizkaia osoko 55 gobernuz kanpoko erakunde hartuko dabe Herriko plazea, GKEen VII. azokearen barruan, domekan. Alkartasuna zabaldu guran, erakunde horreetako boluntario asko batuko dira Barakaldon. Plazara batzen diranek, ganera, Filipinetako dantzak ikusteko aukerea eukiko dabe, Pagkakaisa alkartearen eskutik, eguerdiko hamabi eta erdietan. Ordu bata aldera, barriz, *Tango bi batean* izeneko ikuskizuna eskainiko dau Muga bako Musikariak GKEk. Eta ondoren, Txile, Ekuador, El Salvador, Kolonia eta Mexikoko jatekoak emongo ditue probetako.